

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko irailaren 24ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena**

– **Foru dekretuak:**

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 43/2019 Foru Dekretua, irailaren 24koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko sailletako zuzendariak ordezkatzeko araubidea.

#### EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2019 Foru Dekretua, irailaren 24koa. Onestea Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala.

#### INGURUMENA ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2019 Foru Dekretua, irailaren 24koa. Onestea prezio publikoak, Arabako parke naturaletako arreta guneetan, Garaioko Interpretazio Zentroan eta So-brongo Ur Museoan saltzen diren salgaiei ezartzekoak.

– **Erabakiak:**

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 581/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Foru Aldundiak organismo eta erakunde publiko edo pribatuetan eduki behar dituen ordezkariak izendatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 582/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onestea INDESA 2010 SL sozietateko zuzendari-kudeatzailea izendatzeko proposamena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 583/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onestea SASKI BASKONIA SAD babesteko kontratuaren esleipena, zenbait jarduera egiteko 2019-2020 denboraldian.

#### EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 584/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Javier Hernando García jaunak Ekonomia Garapenaren zuzendari kargua uzteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 585/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Javier Hernando García jauna Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendari izendatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 586/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Iñaki Guillerna Saenz jauna Demografia Erronkaren zuzendari izendatzeari.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 587/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko behin-behineko langileentzako gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 588/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren zerbitzura diharduten funtzionarioen oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 0,25 igotzeari 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

Foru Gobernu Kontseiluaren 589/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko foru kargu publikoen eta behin-behineko langileen oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 0,25 igotzeari 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

Foru Gobernu Kontseiluaren 590/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea telekomunikazio zerbitzuak emateko kontratua Telefónica de España SA-Telefónica Móviles España ABEEri eta Euskaltel SArri esleitzeari, 5 urteko gauzatze epearekin, otsailaren 12ko 71/2019 Erabakiaren bidez iragarritako prozedura irekiaren ondorioz.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 591/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Iñaki Aldekogarai Labaka jaunak Finantza eta Aurrekontu zuzendari kargua uzteari, hark hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 592/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Eduardo López de Aguilera Díaz jauna Finantza eta Aurrekontu zuzendari izendatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 593/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Finantza eta Aurrekontu Saila baimentzeari Arabako udalei ordain diezaien Telefónica de España SAK eta Euskaltel SAK sartutako diru kopuruak, 2019ko ekitaldiko tokiko tributuen ordain moduan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 594/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea 100/2019 kreditu transferentziaren espedienteari, 48.400,00 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Bidezoruak hobetzea eta sendotzea" izeneko partida, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eta Kultura eta Kirol Sailak eskatuta.

#### LURRALDE OREKA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 595/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Iñaki Guillerna Saenz jauna Lurralde Oreka zuzendari kargua uzteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 596/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Jesús María Guinea Díaz de Ojalora jauna Lurralde Oreka zuzendari izendatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 597/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea, aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza lerroen ildotik, Lantziegoko udalak diruz lagunduta egingo duen obra gauzatzeko epea luzatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 598/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea, aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza lerroen ildotik, Bastidako eta Navaridasko udalek diruz lagunduta egingo dituzten obrak gauzatzeko epea luzatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 599/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea, aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza lerroen ildotik, Zuhatsu Kuartan-goko Administrazio Batzarrak diruz lagunduta egingo duen obra gauzatzeko epea luzatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 600/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea, kanpo argiteriaren arloko ekintzetarako dirulaguntzen ildotik, eta Arabako toki erakundeetako gastu arrunta murriztearren eta karbono dioxidoaren isurketak gutxitzen laguntzearren, Done Bikendi Haraneko, Urizaharreko, Kontrastako eta Legutioko Administrazio Batzarrek diruz lagunduta egingo dituzten jarduketak gauzatzeko epea luzatzeari.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 601/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea "A-132 errepidearen Azazetako tartea (Araba) urbanizatzeko eraikuntza proiektua" prozedura ireki erraztu bidez kontratatzeko espedienteari, zeinak 272.451,92 euroko aurrekontua baitu, BEZa barne, eta 6 hilabeteko gauzatze epea.

#### GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 602/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Ana Belén Otero Miguélez andrea Gizarte Zerbitzuen zuzendari izendatzeari.

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 603/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea irailaren 3ko 550/2019 Erabakiaren xedapen zatiko bederatzigarrenean atzemandako hutsak zuzentzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 604/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan hilikiak jasotzeko zerbitzuen kontratua aldatzeari, haiek manipulatu eta deuseztatzeko instalazioan aldaketak egin direlako.

#### INGURUMENA ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 605/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Gopegi-Ondategiko (Araba) saneamendu sarean eta arazketa sistemetan hobekuntzak egiteko eraikuntza proiektuko obren bukaera ziurtagiriari.